

**2009ko OTSAILAREN 5ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko otsailaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
  - **2009ko urtarrilaren 15ean egindako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **2009 urterako euskera ikastaroetako diru-laguntzen onespena, hala bada.**
4. **Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak Larraulgo AA.SS-etako 1.2 E.U-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman eta abala itzultzeko eskaeraren onespena, hala bada.**
5. **Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak Larraulgo AA.SS-etako 4.1 E.U-an urbanizazio lanak egoki amaitutzat eman eta abala itzultzeko egin duen eskaeraren onespena, hala bada.**
6. **01/2008 Kreditu aldaketaren onespena, hala bada.**
7. **Lurdes Perez Patxo andreak eginiko eskaera onestu, hala bada.**
8. **Fakturak eta ordainketak.**
9. **Beste batzuk.**
10. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### ***ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.***

- ▣ 2009 urteko urtarrilaren 15eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### ***ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA***

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

02/2009 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 20koa, 2009ko urtarrilaren 20ko dataz aurkeztutako Goiz Argi Jatetxeko faktura onartzea ebazten duena, 272,56 eurotako kopuruan.

03/2009 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 22koa, 2008ko 4. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### ***2009 URTERAKO EUSKARA IKASTAROETAKO DIRU-LAGUNTZEN ONESPENA, HALA BADA***

Ikusirik Larraulgo Udalak 2008ko urriaren 2an ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2008-2009 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik abenduaren 31rarteko epea finkatu zela diru-laguntza hauen eskaerak egiteko.

Ikusirik epe horren barruan hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betezen dituztela, ondorengoak direlarik:

<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>JARDUERA</b>
ISABEL SIMON GONZALEZ	EUSKARA
ANDRES ARISTI JALON	EUSKARA
MANOLI ALZAS RUBIO	EUSKARA
MARIA PILAR PRIETO SANCHEZ	ESUKARA
JULIO GARCIA ALONSO	ESUKARA

Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2008-2009 ikasterterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak onestea.

BIGARRENA.- Dirulaguntzak arautzen dituzten 8. oinarriak dioenari jarraiki onartutako dirulaguntzaren ordainketa egiteko xede diren ekintza egitasmo edo helburuak bete direla justifikatzen denean, horretarako gastua burutu izanaren faktura eta agiriak aurkeztu beharko dira.

HIRUGARREA.- 2009 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

**GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L. BALTZUAK LARRAULGO AA.SS-etako 1.2. E.U. –an URBANIZAZIO LANAK EGOKI AMAITUTZAT EMAN ETA ABALA ITZULTZEKO ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2008ko irailaren 30ean Rafael Ramirez Aramendia jaunak, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L.ren izenean, Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1.2. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarritako 21.752,28 eurotako abalaren itzulera eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik 2008ko azaroaren 6an egindako Udalbatzarrean erabaki zela, Rafael Ramirez Aramendia jaunak eginiko eskaera, jendaurrean jartzea, G.A.O. argitaratuz, eskatzailearengan eskubideren bat izan dezaketen guztiek, erreklamazioak aurkez ditzazten.

Ikusirik 2008ko azaroaren 24ko G.A.O. an argitaratu zela GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. baltzuak eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 1.2. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen behin betiko abala itzuleraren eskaera, hamabost egunetan jendaurrean egonik inolako erreklamaziorik egon ez delarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

## ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Rafael Ramirez Aramendia jaunari, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. ren izenean eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 1.2. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen abala, hau da, 21.752,28 eurotako bueltatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**BOSTGARREN PUNTUA**

**GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L. BALTZUAK LARRAULGO AA.SS-etako 4.1. E.U. –an URBANIZAZIO LANAK EGOKI AMAITUTZAT EMAN ETA ABALA ITZULTZEKO ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2008ko irailaren 30ean Rafael Ramirez Aramendia jaunak, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L.ren izenean, Larraulgo Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 4.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarritako 112.855,84 eurotako abalaren itzulera eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik 2008ko azaroaren 6an egindako Udalbatzarrean erabaki zela, Rafael Ramirez Aramendia jaunak eginiko eskaera, jendaurrean jartzea, G.A.O. argitaratuz, eskatzailarengan eskubideren bat izan dezaketen guztiek, erreklamazioak aurkez ditzazten.

Ikusirik 2008ko azaroaren 24ko G.A.O. an argitaratu zela GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. baltzuak eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 4.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen behin betiko abala itzuleraren eskaera, hamabost egunetan jendaurrean egonik inolako erreklamaziorik egon ez delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Rafael Ramirez Aramendia jaunari, GESTION Y DESARROLLO GOIARGI S.L. ren izenean eskaturiko Larraulgo Arau Subsidiarioetako 4.1. exekuzio unitateko urbanizazio lanak egoki bermatzeko jarri zuen abala, hau da, 112.855,84 eurotako bueltatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**SEIGARREN PUNTUA**

**01/2008 KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA, HALA BADA**

Udala honen 2008 ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri du, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola.

Era berean, Kontuen Batzorde Informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketako espediente onestea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

#### Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
120.120.00.01	Funtzionarioen oinarrizko ordainketak	31.000,00	3.833,24	0,00
160.120.00.01	Gizarte Segurantzak. Funtzionarioak	8.000,00	1.377,29	0,00
210.510.00.02	Azpiegitura gastuak: Bideak	1.000,00	1.000,00	0,00
221.441.00.02	Ur hornidura	30.000,00	3.591,83	0,00
227.450.00.04	Kirol gastuak	2.500,00	1.130,35	0,00
227.120.00.07	Aholkularitza: Azterketa, Lan Teknikoak	11.000,00	1.875,92	0,00
421.310.00.01	Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea	41.000,00	9.487,43	2.746,69
643.120.00.01	Ikerketa, azterketa, proiekt.	3.000,00	3.000,00	0,00
<b>GUZTIRA ...</b>			<b>25.296,06</b>	

#### Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
130.510.00.01	Laboral Finkoen ordainketak-Brigada	11.300,00	286,12	11.586,12
160.120.01.01	Gizarte Segurantzak. Pertsonal laborala	5.300,00	817,86	6.117,86
210.441.00.01	Azpiegitura gastuak: Ur sarea	3.000,00	482,45	3.482,45

210.510.00.01	Azpiegitura eta ondasun gastuak	8.000,00	7.303,25	15.303,25
221.120.00.03	Gas hornidura	1.200,00	225,58	1.425,58
222.121.00.05	Komunikazio informatikoak	8.000,00	585,21	8.585,21
226.450.00.06	Herriko jaiak	10.000,00	208,80	10.208,80
226.460.00.06	Jarduera sozio kultural gastua	2.500,00	563,73	3.063,73
226.120.00.99	Bestelako hainbat gastu	1.000,00	15,38	1.015,38
230.120.00.01	Pertsonalaren dieta, lokomozio, ...	1.400,00	879,33	2.279,33
231.111.00.01	Goi karguen dieta, lokomozio, etab	9.000,00	102,40	9.102,40
422.120.00.01	Beste Entitateei ekarpenak	12.000,00	2.457,27	14.457,27
430.420.00.01	Udal Administrazioari: Eskola	8.000,00	850,28	8.850,28
480.120.00.01	Partikularrei aportazioak	3.000,00	308,48	3.308,48
601.510.00.01	Azpiegitura eta urbanizazioak	31.791,24	5.151,73	36.942,97
683.120.00.00	Inbertsioak: Ondare Ondasunak	6.000,00	5.058,19	11.058,19
<b>GUZTIRA ...</b>			<b>25.296,06</b>	

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontuhartzailtza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **LOURDES PEREZ PATXO ANDREAK EGINIKO ESKAERA ONESTU, HALA BADA**

Vista la solicitud presentada por Doña Lourdes Pérez Patxo, quien solicita la exención del pago del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica, en base al art. 93.1) del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley Reguladora de las Haciendas Locales, del vehículo adquirido en fecha 19 de diciembre de 2008, marca Nissan Qasqai y matricula 9717 GJZ.

Visto que el Ayuntamiento de Larraul en el Pleno de fecha 29 de enero de 2008 acordó conceder a Doña Lourdes Pérez Patxo la exención del impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica, del vehículo BMW 320D, Matrícula 8878 DDB, vehículo que ha sido transmitido en fecha 19 de diciembre de 2008.

Debatido el tema, esta Corporación, por unanimidad,

ACUERDA:

PRIMERO: Aceptar la solicitud de exención en el pago del impuesto de vehículos de tracción mecánica del vehículo Nissan Qasqai Matrícula 9717 GJZ realizada por Dña. Lourdes Pérez Patxo.

SEGUNDO: Revocar el acuerdo de exención en el pago del impuesto de vehículos de tracción mecánica del vehículo BMW 3200D, Matrícula 8878 DDB, vehículo transmitido por Dña. Lourdes Pérez Patxo en fecha 19 de diciembre de 2008.

TERCERO: Dar cuenta de este acuerdo a Dña. Lourdes Pérez Patxo.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

SUMINISTROS ELECTRICOS MEGA	133,11
TELEFONICA	13,02
TELEFONICA	90,96
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	69,04
BELARMENDI	321,90
EUSKALTEL	175,78
IBERDROLA	50,47
ULAHI	770,69
MANPEL	51,21
GIPUAKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	26,25
GIPUAKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA	22,75
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	7.518,08
FONGUI, S.A.	28,57
ATISAE	167,00
MANPEL	19,93
JOXAN ALTUNA	24,76
GOIKOETXEA ALBISU	60,67
JOXAN ALTUNA	123,80

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **9.684,2** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

*Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.*

**9.1. AIZTONDO KLASIKA BATZORDEARI EGIN BEHARREKO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Ikusrik 2009ko otsailaren 5ean Aiztondo Klasikako Batzordeak VI. Aiztondo Klasikoaren aurrekontua bidali duela guztira 26.000 eurotako dena. Larraulgo Udalarik 831,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 831,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2009 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

**HAMARGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA